

## AKTA

### UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2026/02/25

**Ordua:** 18:00-ak

**Tokia:** Udaletxeko Areto Nagusian

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Joana Mendiboure

**Zinegotziak:**

EHBildu

Agustin Lekuona Irastorza  
Olaiia Lasa Olaziregi  
Garazi Urdampilleta Astibia  
Nora Velez del Burgo Zalakain  
Jexux Olaziregi Bagües  
Edorta Fernandez Etxepeteleku  
Oihana Irastorza Gonzalez  
Ekain Susperregi Iburguren  
Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV

Janire Mitxelena Lekuona  
Rafael Bergaretxe Urdampilleta  
Maitane Larruskain Agirre  
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

**Idazkaria:**

Maria Victoria Joaristi Olariaga

**Ezin etorria adierazi dute:**

Ibon Mitxelena Fernandez  
Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi  
Ibintza Irigorri Iriarte

#### AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. Oiartzungo udal ikastola Partzuergoari 2026 urteko ekarpena onartu zen.
3. Haurreskolak Partzuergoa – Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa: etorkizunerako aukeren proposamenari onarpena eman zitzaion.
4. Oiartzungo udala GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.ren kide izateko erabakia eta partizipazioen erosketa, eta bitarteko propioa izendatzeko proposamena onartu zen.



OIARTZUNGO  
UDALA

5. Oiartzungo udalerrria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko agiriak onartzea eta Jaurlaritzari eskaera igortzea erabaki zen.
6. Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen Erregistroa arautzen duen Erregelamenduaren aldaketa onartu zen.
7. Beste organoen jardueraren jarraipenaren berri eman zen.
8. Ez zen eskari-galderarik egon.

-I-

## AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2026ko otsailaren 25ean egindako Udal Osoko ohiko bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 14 botorekin (EH Bildu 10, EAJ/PNV 4)

-II-

## OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOARI 2026 URTEKO EKARPENA

Oiartzungo udal ikastola Partzuergoa 1999an eratu zen eta 2023an Oiartzungo udalari atxiki zitzaion. Bere estatutuak 2023/11/6ko GAOn argitaratuta daude. Bere kideak Oiartzungo Udala eta Hautzaro ikastola S. Coop. dira. Irabazi asmorik gabeko erakundea da eta nortasun juridiko propioa du eta jarduteko gaitasun osoa, bere helburuak betetzeko. Xedea Oiartzungo hezkuntza-proiektuak sustatzea eta kudeatzea da. Araubide juridikoa, nagusiki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea da.

Urtero bezala, Partzuergoak 2026ko urtarrilaren 12an 2026 urteko ekarpenaren proposamena luzatu dio udalari hileroko ekarpenak bideratzeko.

Udal kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, urte osoko ekarpena 893.272,80 €-tan finkatzen da eta zenbateko hori finkatzeko %2,5eko goiera aurreikusi dute langileen soldatetan.

Espainiako Gobernuak sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak gehienez %1,5ean igo daitezkeela finkatu du 14/2025 Errege lege-dekretuan.

Ondorioz, Partzuergotik proposatutakoa 14/2025 Errege lege-dekretuak baimentzen duenaren gainetik dagoenez murrizketa bat egin behar da berak aurreikusitako ekarpenean. Soldaten %1,5eko goiera aplikatuz gero, pertsonal gastuaren murrizketa 9.002,84 € da eta urteko ekarpena 884.269,96 €-koa.

Bestalde, Kontuhartzaileak egindako bigarren txosten batean dio, Partzuergoaren finantzazioan laguntzeko Oiartzungo Udalak Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duen dirulaguntza datorren ikasturtean, hau da, irailetik aurrera eten egingo dela jakin dela. Eta, ondorioz, Oiartzungo Udalak aldatu egingo duela Partzuergoaren kudeaketa irailetik aurrera, eta horrenbestez, onartu beharreko ekarpena ere ez lukeela urte osokoa izan beharko aurreko txostenean jartzen zuen bezala, abuztua artekoa baizik.

Horrenbestez, une honetan 568.459,26 €-ko ekarpena onartzea proposatzen du kontu-hartzaileak (ekainean 126.324,28 € eta gainontzeko hilabeteetan, urtarritik abuztura, 63.162,14 € hilabete) eta kudeaketa berria zein izango den jakitean, beharrezkoa balitz, Partzuergoari egin beharreko gainontzeko ekarpenak tramitatuko direla.

Bere aldetik, udal idazkariak egindako txostenaren arabera, udala, administrazio publikoen legerian (Toki jaurbideak arautzen dituen 7/1985 Legea, Toki jaurbidean indarrean dagoen araudiaren Testu Bateratuak onartzen duen 781/1986 EDL eta gainerakoak) udal zerbitzuak kudeatzeko ematen diren moduen artean erakunde berri bat sortzearena hautatu zuen. Gaur egun Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak partzuergoak eratzea aurreikusten du, baita irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin eta, are gehiago, oinarrizko zerbitzuak emateko lehentasunezko kudeaketa modua izendatzen du.

Gauzak horrela, ez dago zalantzarik haur hezkuntza udalaren eskumena dela (7/1985 Legearen 25.2.n art.), bai 1999an bai orain. Horren adierazle Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak berak urtero hitzarmena egin duela eta aurrekontuaren kopuru handi bat finantzatu duela dirulaguntzen bidez, beti ere haur

kopurua aintzat hartuta. Honen guztiaren ondorioz, udalak zerbitzu publiko bat emateko erabakia erabat legezkoa da eta, legez ezarritako moduen artean, kudeaketa modua hautatzeko erabakia ere. Kontuan izan, udalen jardunarekiko Konstituzioaren 140. artikuluan “tokiko autonomia”ren printzipioa ezartzen duela eta bere defentsan “berme instituzionala”ren kontzeptua ezarri dela Auzitegi Konstituzionalean, hau da, udalaren eskumenak errespetatu egin behar direla, beste administrazioek eta legegileek ere.

Horrenbestez, udala Partzuergoari ekarpenak egiteko eta bere funtzionamendua finantzatzeko betebeharra du eta 2026ko ekarpenaren aldeko ebazpena hartzea egokia da.

Guzti hau kontuan hartuta, Kontuhartzailearen eta Idazkariaren txostenen baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026ko otsailaren 19an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

### AKORDIOA

Bakarra.- Kontu-hartzaileak soldatak eguneratzeari egindako txostena kontuan izanik, honako ekarpena onartzea: 568.459,26 €-ko ekarpena (ekainean 126.324,28 € eta gainontzeko hilabeteetan, urtariletik abuztura, 63.162,14 € hilabeteko) eta kudeaketa berria zein izango den jakitean, beharrezkoa balitz, Partzuergoari egin beharreko gainontzeko ekarpenak tramitatuko direla.

Orotara ekarpena 568.459,26 €-koa da eta udal aurrekontuan aurreikusitako 1 0313.481.323.00.01.2026 (AD-46/2026) partidatik bideratzea proposatzen da. Orain diru guztia erreserbatzea eta hilabetez-hilabete dagokiona ordaintzea proposatzen da.

Alkateak hitza hartzen du eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa 1999an eratu zela eta 2008an Oiartzungo Udalari atxiki zitzaioela azaltzen du. Estatutuak 23/11/06 GAOn argitaratuta daudela eta bere kideak Oiartzungo Udala eta Haurtzaro Ikastolako kooperatiba direla argitzen du. Irabazi asmorik gabeko erakundea dela, nortasun juridiko propioa duela eta jarduteko gaitasun osoaz gozatzen duela bere helburuak betetzeko. Xedea Oiartzungo hezkuntza proiektuak sustatzea eta kudeatzea dela azpimarratzen du Alkateak.

Urtero bezala, Partzuergoak 2026ko urtarrilaren 12an 2026 urteko ekarpenaren proposamena luzatu dio udalari, hileroko ekarpenak bideratzeko. Erabaki hori hartzeko bi txosten daudela dio Alkateak.

Lehenengoa udal kontu-hartzailearena. Bertan egindako txostenaren arabera, urteko osoko ekarpena 883.262,80 eurotan finkatzen da eta zenbateko hori finkatzeko %2,5eko igoera aurreikusten dute langileen soldatetan. Espainiako Gobernuak ordea, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak gehienez %1,5ean igo daitezkeela finkatu du, 14/2026 Errege Lege Dekretuan. Ondorioz, Partzuergotik proposatutakoak legea gainditzen duenez edo berak baimentzen duena gainditzen duenez, murrizketa bat egitea proposatzen du udal kontu-hartzaileak, edo horrela esaten du egin behar dela. Soldatei %1,5eko igoera aplikatuz gero, pertsonal gastuaren murrizketa 9.002,2 eurokoa da, eta urteko ekarpena beraz, 884.269,66 eurotako litzateke.

Bestalde kontu-hartzaileak, bigarren txosten bat ere egin du. Partzuergoaren finantzazioan laguntzeko Oiartzungo Udalak, Eusko Jaurlaritzatik jasotzen duen dirulaguntza datorren ikasturtean ez duelako edukiko. Eta ondorioz, irailtik aurrera, bestelako egoera batean gertatuko delako partzuergoaren

kudeaketa. Horrenbestez, onartu beharreko ekarpena ez lukeela urte osokoa izan beharko dio txostenean, eta izan beharko lukeela abuztua bitartekoa.

Horrenbestez, une honetan, 568.449,26 euroko ekarpena onartzea proposatzen du kontu-hartzaileak. Hau da, urtariletik abuztua bitarteko gastuak estaliko lituzkeen ekarpen bat. Bere aldetik, udal idazkariak egindako txostenaren arabera, Udalak administrazio publikoen legerian jasotakoari jarraiki, udal zerbitzuak kudeatzeko ematen diren moduen artean erakunde berri bat sortzearena hautatu zuen. Gaur egun, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legeak partzuergoak eratzea aurreikusten du, baita irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin eta are gehiago oinarritzko zerbitzuak emateko lehentasunezko kudeaketa modua izendatzen du.

Gauzak horrela, haur hezkuntza udalaren eskumena dela dio Alkateak, bai 1999an eta bai orain. Horren adierazle, Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak berak urtero hitzarmenean egiten duen diru ekarpena edo aurrekontuaren kopuru handi bat finantzatu izana dela, betiere haur kopuruak aintzat hartuta. Honen guztiaren ondorioz, Udalak zerbitzu publiko bat emateko erabakia erabat legezkoa dela, baita legez ezarritako moduen artean, kudeaketa modua hautatzeko erabakia ere.

Udalen jarduera irekiko Konstituzioaren 140. Artikuluaen arabera, tokiko autonomiaren printzipioa ezartzen duela dio eta bere defentsan, Auzitegi Konstituzionalean berme instituzionalaren kontzeptua ezarri dela. Hau da, udalaren eskumenak eta beste administrazioek eta legegileek ere errespetatu egin behar direla dio Alkateak. Horrenbestez, Udalak Partzuergoari ekarpenak egiteko eta bere funtzionamendua finantzatzeko betebeharra duela azpimarratu nahi izan du.

Beraz, esandako guztia kontutan edukita, 2026ko ekarpenaren aldeko ebazpena hartzea egokia dela dio Alkateak.

Janire Mitxelena EAJ/PNV partiduko zinegotziak hitza hartzen du.

Beraien taldeak aldeko botoa emango duela adierazten du. Zerbitzu honek martxan jarraitu behar duela azpimarratzen du ezinbestekoa eta beharrezkoa delako familientzat. Hala ere, irailtik aurrera zerbitzuaren etorkizuna zein izango den kezkatzen diela azpimarratu du beraz, hurrengo puntuan beraien oposizioa adieraziko dutela dio.

Bozketara pasa aurretik Oihana Irastorza Gonzalez aretotik ateratzen da, bere lanak eta gaiak duten erlazioa dela eta.

Beraz esandako guztia kontutan hartuta, Kontuhartzailearen eta Idazkariaren txostenen baitan eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026eko otsailaren 19an emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzako, aho batez, onartu du Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoari 2026. Urteko ekarpena egitea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		



## HAURRESKOLAK PARTZUERGOA – OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOA: ETORKIZUNERAKO AUKEREN PROPOSAMENARI ONARPENA

Oiartzungo Udalak 1991n hasitako lanketa baten ondorioz, herriko haur hezkuntza zentroak bateratzeko prozesua hasi zuen. Garai hartan, Udalaren haur-eskolak, beste bi haur-eskola pribatuek, Haurtzaro Ikastolak, eta Elizalde herri eskolak parte hartu bazuten ere, azkenean 1999an, Udalak zentro pribatuekin eta Haurtzaro Ikastolarekin batera osatu zuten Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa. Eta azken 30 urte hauetan herriko haur-eskolaren kudeaketa eraman du, Hezkuntza Sailak udal haur-eskolak finantzatzeko dirulaguntzaren urtez urteko sostenguarekin.

2024ko azaroan Hezkuntza Sailak ahoz jakinarazi zuen udal haur-eskolei egiten dien ekarpena bertan behera utziko zuela eta udal haur-eskolei Hezkuntza Sailaren Haurreskolak Partzuergoan sartzeko gonbidapena luzatu zien. Ondoren, herri bakoitzak bere ibilbide eta gogoetak egin ahal izateko urtebeteko luzamendua eskatu eta onartu zen.

Zerbitzuak udal aurrekontuan duen eragina ikusirik, Oiartzungo Udalak ondorioztatzen du Hezkuntza Sailaren babesik gabe ezinezkoa zaiola duela 30 urte sortutako Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren (OUIP) egitura bere horretan eustea.

Egoera honetan, **Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailari proposatzen dio 2026-2027 ikasturtean Haurreskolak Partzuergoa izatea OUIPen sartzeko dena, ondorengo arrazoietan oinarrituta:**

### 1.- Oinarri juridikoa

OUIPeko estatutuen 1. artikulua beste erakunde edo entitate bat OUIPen sartzeko aukera jasotzen du.

Zehazki, 2023ko azaroaren 6ko 213 zk.ko GAO n argitaratutako Estatutuetan honela esaten da: “Oiartzungo Udalez eta Haurtzaro Ikastola S. Coop. sozietateaz gain, Partzuergoko kide izango dira, halaber, gerora estatutu hauetan ezarritakoaren arabera hari atxikitzen zaizkion erakundeak”.

Bere aldetik, 9. artikulua zuzendaritza batzordeari buruz dio, “Partzuergoari atxikitzen zaion erakunde berri bakoitzeko ordezkari bat” izendatuko dela organo horren kide izateko.

Eta, azkenik, 29. artikulua Partzuergoko kide izatera “sartzeko prozedura” arautzen du. Interesdunaren eskaeraren ondoren, zuzendaritza batzordeak aho batez onartu behar du eta hitzarmena sinatuko da, bertan kide berriak hartzen dituen betebeharrak eta zuzendaritza organoetan izango duen kide kopurua zehaztuz.

Aipagarria da, halaber, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa Haurreskolak Partzuergoa baino lehen sortutako partzuergoa dela, hasieratik nortasun juridiko desberdinetako erakundeak bere baitan bildu dituen eta biltzeko bokazioa izan duena zein duena.

Bestalde, Haurreskolak Partzuergoaren estatutuen arabera, “haur-eskolak kudeatzeko eta hiru urtetik beherakoentzako arreta asistentzial eta hezitailerako” eratu zen. Eta 05/03 2025 Erabakiak, martxoaren 12koak, Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearenak, “Haurreskolak, plazen eskaintza, funtzionamendua eta 2025-26 ikasturterako haurrak onartzeko araudia eta irizpideak” onartzen dituenak, horrela dio:

“Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, zero eta hiru urte bitarteko haur-eskolak arautu zituen Euskal Autonomia Erkidegoan, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturtean, hiru urtetik beherako haurrei hezkuntza-arreta eskaini eta familiei laguntzeko zerbitzu espezializatua eskaintzeko helburuarekin”.

Beraz, Haurreskola Partzuergoak eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak lan esparru eta adin tarte berdina dutela egiaztatzen da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko zero eta hiru urte bitarteko haurrentzako haur-eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak honakoa ezartzen du:

“Udal-titulartasuneko haurtzaindegietako eta haur-eskoletako egungo eskaintza sendotzeko, hezkuntza-administrazioak hitzarmenak egingo ditu dekretu hau indarrean jarri aurretik haur-eskolak eta/edo haurtzaindegiak sortu dituzten toki-korporazioekin, Eusko Jaurlaritzak gainerako euskal erakundeekin lankidetzan garatuko duen eskaintza publikoa zabaltzeko etorkizuneko jarduketan kalterik gabe, partzuergo-formulak barne”.

Hau da, Dekretua onartu zuen Gobernu Kontseiluak udal-titulartasuneko haur-eskolen eskaintza sendotu nahi zuen, eta hitzarmenez gain, partzuergo-formulak ere jaso zituen, pluralean, hau da, Haurreskolak Partzuergoa sortzeaz gain, udal partzuergo baten partzuergoan sartzea ere kontuan hartu zuen.

## 2. Oinarri laborala

Gaur egun OUIPek 15 langile ditu lan-kontratu finkoarekin eta Haurreskolak Partzuergoa OUIPen sartuta, langilego berarekin jarraitzeko aukera egongo litzateke. Hezkuntza Sailak OUIP Haurreskolak Partzuergoan sartzeko egindako proposamenean 10-11 langileren subrogazioa aipatzen zen. Kontuan hartu behar da OUIPek enpresa-hitzarmen propioa duela, eta hitzarmen horrek arautzen dituen lan-baldintzak ez datozela bat Haurreskolak Partzuergoan aplikatzen direnekin, zeinak Haurreskolak Partzuergoaren hitzarmen kolektiboan jasota baitaude (8602535 hitzarmen-kodea). Inguruabar horrek zaildu egiten du subrogazio-prozesua bai ikuspegi juridikotik, baita ikuspegi sozialetik ere.

Kasu honetan, Hezkuntza Saila OUIPen integratuko balitz, 10-11 langileren ordainsarien finantzaketan parte hartu beharko luke, baina ez litzateke beharrezkoa izango langileen subrogazioari lotutako inolako kudeaketarik egitea. Horrenbestez, lan-harremanak bere horretan mantenduko lirateke, eta prozesua baketsuagoa eta segurtasun juridiko handiagokoa izango litzateke. Izan ere, ezaguna da subrogazio-prozesuek maiz gatazka edo arazo laboralak sortzen dituztela, bereziki lan-baldintzen homologazioari, antolaketari, funtzioen esleipenari edo antzinatasunaren aitortzari dagokienez.

Bestalde, lau lanpostu 2 urteko gelen titularitateak baldintzatuta egongo lirateke, eta gaur egun egoera hori ez dago guztiz argituta, oraindik zehaztu gabe baitago gela horien titularitatea eta, ondorioz, lanpostu horien etorkizuneko egoera. Edonola ere, Haurreskolak Partzuergoa OUIPen integratuz gero, ondoriozta daiteke OUIP osatzen duten entitateen esku geratuko litzatekeela lanpostu horien finantzaketa, baita egungo 0–3 zikloko antolaketa-ereduaren jarraipena ere.

Horrez gain, hezitzaile bakoitzak hezkuntza-ziklo osoa haur berberekin hasten eta amaitzen du, hau da, 0 urtetik 2 urtera arteko talde berarekin egiten du lan, proiektu pedagogikoaren jarraitutasuna eta lotura afektiboa bermatzeko. Antolaketa-eredu horrek esan nahi du langileen eginkizunak ez daudela adin-tarte zehatz bati lotuta, baizik eta ziklo osoari; ondorioz, oso konplexua da, ezinezkoa ez bada, langileak 0–1 eta 2 urteko gelen arabera bereiztea, eta horrek are gehiago zailtzen du subrogazioa.

Hori guztia kontuan hartuta, langileen kudeaketari dagokienez, Haurreskolak Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan (OUIP) integratzea errazago gauzatu daiteke eta bideragarritasun handiagoa duen aukera dela ondorioztatzen da, alderantzizko integrazio-ereduaren aldean.

## 3.- Oinarri soziala

### 3.1. OUIPen erreferentzialtasuna

OUIP 1999an sortutako partzuergoa da, ordutik hona herriko familiei 0-3 urte arteko hezkuntza proiektu bateratua eskaini dien erakundea. Ondorengo bereizgarriek ezaugarritzen dute:

- **Aitzindaria:** Erakunde publiko eta eragileen arteko elkarlana orain 30 urte hasi zen Oiartzunen. Izan ere, herriko haur eskola txiki pribatuek, Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak udal ikastola partzuergoa sortu zuten 1999. urtean.
- **Egitura irekikoa:** Gorago esan bezala, OUIPen estatueta hala jasota dagoenez, sorreratik dago aukera zabalik hala nahi duen entitate edo erakundea OUIPera batzeko.
- **Erreferentea:** 0-2 urte arteko Oiartzungo hezkuntza proiektu bakarra eta batua da. Edozein dela ere bi edo hiru urtetik aurrera haurra matrikulatzeko gurasoek aukeratutako ikastetxea, OUIP 0-2 urte arteko hezkuntza proiektu bakarra, bateratua eta erreferentea da herrian, eta horregatik da Oiartzungo familien bilgune nagusietako bat. Azken hiru hamarkadetan, milaka haur eta familia pasa dira bertatik.
- **Hezkuntza proiektu sendoa duena:** Pedagogoek goستن duten 0-3 zikloan jardun du 30 urtez OUIPeK eta Oiartzunen oso harrera ona izan du.
  - **Euskara ardatz:** Euskaraz bizi da, kulturartekotasuna zaintzen du, euskalkia eta herriko ohiturak jardun pedagogikoan integratzen ditu.
  - **Zaintzarako funtsezko:** Funtsezko zerbitzua da zaintzaren ikuspegitik ere. Zentro pedagogiko bat den arren, ez da gutxietsi behar 0-3 bitarteko haurren zaintzan egiten duen ekarpena. Ratio eta ordutegi orokorrak araututa dauden arren, malgutasunerako aukera ematen du eta horri eustea funtsezkoa da herrian zaintzarako kalitatezko zerbitzuak eskaintzen jarraitu ahal izateko.
  - **Jangela propioa:** KM0 produktuekin ekoizitako kalitatezko otorduak eskaintzen ditu bertako sukaldeari eta sukaldarien eguneroko lanari esker. Are gehiago, sukaldea proiektu pedagogikoaren parte da. Haur guztiek otordu berdina jaten dute, mahai bueltan, eta une hori ere heziketarako eguneroko momentu inportantea da.
- **Profesionala eta eraldatzailea:** orain hiru hamarkada hartutako erabakiak profesional talde sendoa eta lanerako ipar bera duena sortzeko eta, urteen joanean, sendotzeko aukera eman du. Sinergien baturak hezkuntza proiektu berritzaile eta eraldatzailea ekarri dio herriari eta adituen bisita ugari jasotzen du Euskal Herritik zein Europatik.
- **Errotua:** OUIP herriaren parte da. Ibilbide luzea du egina, zilegitasun eta onarpen osoa ditu; ezin ukatzeko proiektua da, eztaba daezina. 2026ko urtarrilean familiei zuzendutako galdetegiaren emaitzak argiak dira: familia oiartzuarrek oso balorazio ona egiten dute OUIP proiektuaz eta eskaintzen dituen zerbitzu eta azpiegiturez.
- **Tokikoa:** Unean uneko beharrak identifikatzeko erraztasun eta ahalmena dakar tokiko kudeaketak eta horrek gertutasuna eta arreta zuzena bermatu diete OUIPeK langile zein familiei; orokorrean, baita herriko adin horretako hezkuntza beharrei ere.
- **Doakoa:** 2023ko irailaz geroztik, doakoa da OUIP.

### 3.2. Elkarlanaren ekarpen soziala

Hezkuntza Sailaren eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren elkarlanak ekarpen sozial garrantzitsua ekarriko luke.

- **Hezkuntza Saila:** Hezkuntza Sailak proiektua garatzeko ezinbesteko bideragarritasuna bermatuko luke. Administrazio Kontseiluko kide izanik, bere erabaki ahalmena baliatuz, pedagogia- zein kudeaketa-irizpide berriak txertatzeko aukera ere izango luke.
- **Oiartzungo Udala:** Udalak dira herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak. Udalak unean uneko herriko beharrak detektatzeko hurbileko begirada bermatuko lioke proiektuari, baita aurreikusten zailak izan daitezkeen beharrak asetzeko malgutasun eta azkartasuna ere.

## **Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak eta baliabideak guztiz osagarriak dira eta elkarlana herritarren beharrak asetzeko kalitatezko zerbitzua egikaritzeko aukera paregabea da.**

Erakundeen arteko harreman-bide iraunkorrak sortzea ezinbesteko izango da hezkuntza-erronkei elkarrekin erantzuteko. Gero eta indar handiagoa du herritarrak hezteko ardura partekatua denaren ideiak. Horretan sinisten du Oiartzungo Udalak eta herriak. Premisa horretatik abiatzen dira eskola eta herria elkarreaginean jarduten duten bi esparru direla esatean; batak zein besteak elkarren beharra dute.

Arnas luzeko proiektu estrategikoa da OUIP, erreferentea eta zilegitasun osoa duena. Haurreskolak Partzuergoa bere parte izango lukeen OUIPen etapa berria ilusio bereziz eta propioa izatearen gogoz biziko litzateke Oiartzunen. Era berean, une hau historikotzat jotzen da, hainbeste urtez sesio-iturri izan den ikastetxeen arteko lehia gainditu eta herrian **hezkuntza proiektu bateratu bat sortzeko** benetako aukerak ikusten baitira, **etorkizuneko bide baten hazia**. Hain zuzen ere, gaur egungo EAEko hezkuntza sisteman dagoen gatazka edo aurrera egin ezinak gainditu eta panorama berri batera eramango gintuzkeena, oiartzuar guztien mesedetarako. **Udala, Haurtzaro Ikastola eta Hezkuntza Saila batuko litzuzkeen entitatea elkartzeko gune erreala litzateke, herrian arnagune eta hazi bat.**

Laburbilduz, udalen hezkuntza-eskumenak zein diren garbi jasota dago indarrean den legedian, eta beraz, udalen jarduna hortik abiatzen da. Hala ere, **tokian toki, gero eta gehiago dira hezkuntza komunitatearekin lankidetzan aritzeko esparruak zabaltzen ari diren udalherriak. Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden instituzioak eta, ondorioz, maila lokaleko erronkak ondoen diagnostikatu eta horiei aurre egiteko esku-hartze gaitasun handi eta eraginkorrena izan dezaketenak**; finean, herritarren premiak ondoen ezagutu ditzaketenak. Hezkuntza Sailak, aldiz, bideragarritasunerako giltza du.

Guzti hau kontuan hartuta eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026ko otsailaren 19an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

### **AKORDIOA**

**Bakarra.-** Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailari elkarlana proposatzea eta irtenbide desberdinak jorratzea honako aukeretan oinarrituta:

1. 2026ko otsailean Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailari proposatzen dio 2026-2027 ikasturterako Haurreskolak Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan sartzea, Oiartzungo herriak 30 urtean garatutako erreferentziazko proiektua garai berrietara eraldatzeko. Tokiko erakundeen Euskadiko 2016/2 legean jasota dagoenez, udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakunde publikoak. Zentzu horretan, udalak unean uneko herriko beharrak detektatzeko hurbileko begirada bermatuko lioke proiektuari eta Hezkuntza Sailak proiektua garatzeko ezinbesteko bideragarritasuna. Bakoitzak bere arduratik erantzunez eta aukera paregabe hau baliatuz, Oiartzungo Udalak eskua luzatzen dio Hezkuntza Sailari kalitatezko herri hezkuntza proiektu bat elkarlanean garatzeko.

2. Oiartzungo Udalak adierazten du erakunde publiko bat izanik, hala dagokion arduratik eta betekizunetik, prestutasun osoa duela OUIPen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko egon daitezkeen aukera guztiak Hezkuntza Sailarekin lantzeko; bere lehentasuna 1. puntuan aditzera emandakoa izanik, 2026-2027 ikasturterako OUIP Haurreskolak Partzuergoan sartzeko aukera baztertu gabe.

Alkateak hitza hartzen du. Oiartzungo Udalak 1991ean hasitako lanketa baten ondorioz, herriko haur hezkuntza zentroak bateratzeko prozesua hasi zuen. Garai hartan, udalaren haur-eskolak, beste bi haur-eskola pribatuk, Haurtzaro Ikastolak eta Elizalde Herri Eskolak parte hartu bazuten ere, azkenean, 1999an, Udalak zentro pribatuekin eta Haurtzaro Ikastolarekin batera osatu zuen Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa. Eta azken 30 urte hauetan, herriko haur-eskolaren kudeaketa eraman du Hezkuntza Sailak udal haur-eskolak finantzatzeko dirulaguntzaren urtez urteko sostenguarekin.

2024ko azaroan Hezkuntza Sailak ahoz jakinarazi zuen Udal Haurreskolei egiten dien ekarpena bertan behera utziko zuela. Eta Udal Haurreskolei Hezkuntza Sailaren Haurreskolak Partzuergoan sartzeko gonbidapena luzatu zitzairen. Ondoren herri bakoitzak bere ibilbide eta gogoetak egin ahal izateko urtebeteko luzapena eskatu eta onartu zen.

Zerbitzuak Udal aurrekontuan duen eragina ikusirik, Oiartzungo Udalak ondorioztatzen du Hezkuntza Sailaren babesik gabe ezinezkoa zaiola duela 30 urte sortutako Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren egiturari bere horretan eustea. Egoera honetan, Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailari proposatzen dio 2026-2027 ikasturtean Haurreskolak Partzuergoa izatea OIUPen sartzeko dena. Ondorengo arrazoi hauetan oinarrituta.

Lehenengo puntuan oinarri juridikoa. OIUPeko estatutuen lehen artikulua beste erakunde identitate bat OIUPen sartzeko aukera jasotzen du. Alkateak berriro errepikatzen du. Lehen artikulua zehazki honela esaten du: "Oiartzungo Udalez eta Haurtzaro Ikastola Kooperatibaz, edo sozietateaz gain, Partzuergoko kide izango dira, halaber, gero da, estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, hari atxikitzen zaizkion erakundeak. "Bestalde, bederatzigarren artikulua, zuzendaritza batzordeari buruzkoak, dio: Partzuergoari atxikitzen zaion erakunde berri bakoitzeko ordezkari bat izendatuko dela, organo horren kide izateko. Eta azkenik, 29. artikulua, Partzuergoko kide izatera sartzeko prozedura arautzen du: Interesdunaren eskaeraren ondoren, zuzendaritza batzordeak aho batez onartzen du. Onartu behar du eta hitzarmena sinatuko da, bertan kide berriak hartzen dituen betebeharrak eta zuzendaritza organoetan izango duen kide kopurua zehaztuz.

Alkateak azpimarratu nahi izan du, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoa, Haurreskolak Partzuergoa baino lehen sortutako partzuergoa dela. Hasieratik nortasun juridiko desberdinetako erakundeak bere baitan bildu dituen eta biltzeko bokazioa izan duena. Bestalde, Haurreskolak Partzuergoaren estatutuen arabera, haur-eskolak kudeatzeko eta hiru urtetik beherakoentzako arreta asistentzial eta hezitzaileko eratu zen

Bestalde, partzuergoaren zuzendaritza batzordearen erabakia azaldu du Alkateak. Abenduaren 17ko 299/2002 dekretuak, 0 eta 3 urte bitarteko haur-eskolak arautzen zituen Euskal Autonomia Erkidegoan. Hiru urtetik beherako haurrei hezkuntza arreta eskaini eta familiei laguntzeko zerbitzu espezializatua eskaintzeko helburuarekin. Beraz, Haurreskolak Partzuergoak eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoak lan esparru eta adin tarte berdina dutela egiaztatzen dela azpimarratzen du Alkateak.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haur-eskolak arautzen dituen abenduaren 17ko 297/2002 dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak diona irakurtzen du Alkateak: Udal titulartasuneko haurtzaindegietako eta haur-eskoletako egungo eskaintza sendotzeko, Hezkuntza Administrazioak hitzarmenak egingo ditu dekretu hau indarrean jarri aurretik haur-eskolak eta/edo haurtzaindegiak sortu dituzten toki korporazioekin. Eusko Jaurlaritzak gainerako euskal erakundeekin lankidetzan garatuko duen eskaintza publikoa zabaltzeko etorkizuneko jarduketan kalterik gabe. Partzuergo formulak barne.

Hau da, dekretua onartu zuen gobernu kontseiluak udal titulartasuneko haur-eskolen eskaintza sendotu nahi zuen eta hitzarmenez gain partzuergo formulak ere jaso zituen. Pluralean, hau da, Haurreskolak Partzuergoa sortzeaz gain, udal Partzuergo baten partzuergoan sartzea ere kontuan hartu zuela azaltzen du Alkateak.

Aipatutakoa oinarri juridikoari dagokionez, Oinarri laboralari begira, gaur egun, OUIPak 15 langile ditu lan-kontratu finkoarekin, sukaldekoak kontuan hartu gabe, eta Haurreskolak Partzuergoa OUIPen sartuta langileko berarekin jarraitzeko aukera egongo litzateke. Hezkuntza Sailak OUIP Haurreskolak Partzuergoan sartzeko egindako proposamenean 10-11 langileren subrogazioa aipatzen zela azaltzen du Alkateak.

Gogorarazi du kontuan hartu behar dela OUIPak hitzarmen propioa duela, eta hitzarmen horrek arautzen dituen lan baldintzak ez datozela bat Haurreskolak Partzuergoan aplikatzen direnekin. Inguruabar horrek zaildu egiten du subrogazio prozesua, bai ikuspegi juridikotik, bai eta ikuspegi sozialetik ere. Kasu honetan Hezkuntza Saila OUIPan integratuko balitz, 10-11 langileren ordainsarien finantzaketan parte hartu beharko luke baina ez litzateke beharrezkoa izango langileen subrogazioari lotutako inolako kudeaketarik egitea. Horrenbestez, lan harremanak bere horretan mantenduko lirateke, eta prozesua baketsuagoa eta segurtasun juridiko handiagoa izango litzateke. Izan ere, ezaguna da subrogazio prozesuek maiz gatazka edo arazo laboralak sortzen dituztela. Bereziki, lan baldintzen homologazioari, antolaketari, funtzio esleipenari edo antzinatasunaren aitortzari dagokionez.

Bestalde, lau lanpostu, 2 urteko gelen titularitateak baldintzatuta egongo liratekeela azaltzen du Alkateak. Gaur egun egoera hori ez dago guztiz argituta, oraindik zehaztu gabe baitago gela horien titularitatea zein izango den etorkizunean. Ondorioz lanpostu horien etorkizuneko egoera zalantzan dago. Edonola ere, Haurreskolak Partzuergoa OUIPan integratuz gero ondoriozta daiteke OUIP osatzen duten entitateen esku geratuko litzatekeela lanpostu horien finantzaketa eta egungo 0-3 zikloko antolaketa ereduaren jarraipena ere.

Horrez gain, hezitzaile bakoitzak hezkuntza ziklo osoa haur berberarekin hartzen eta amaitzen duela azpimarratu du Alkateak. Hau da, 0 urtetik 2 urtera arteko tarte horretan talde berarekin egiten duela lan. Proiektu pedagogikoaren jarraitutasuna eta lotura afektiboa bermatzeko. Antolaketa eredu horrek esan nahi du langileen eginkizunak ez daudela adin-tarte bati zuzenean lotuta baizik eta ziklo osoari. Ondorioz oso konplexua da, ezinezkoa ez bada, langileak 0, 1 eta 2 urteko gelen arabera bereiztea eta horrek are gehiago zailtzen du subrogazioa. Hori guztia kontuan hartuta langileen kudeaketari dagokionez Haurreskolak Partzuergoa OIartzungo Udal Ikastola Partzuergoan integratzea errazago gauzatu daiteke eta bideragarritasun handiagoa duen aukera dela ondorioztatzen da, alderantzizko integrazio ereduaren aldean.

Hirugarren puntuari dagokionez, oinarri soziala aipatzen du Alkateak. OUIP 1999an sortutako partzuergoa da. Ordutik hona, herriko familiei 0-3 urte arteko hezkuntza proiektu bateratua eskaini dien erakundea. Ondorengo bereizgarriek ezaugarritzen dute. Aitzindaria dela eta erakunde publiko eta eragileen arteko elkarlana orain 30 urte hasi zela OIartzunen. Izan ere, herriko haur-eskola txiki pribatuek, Haurtzaro Ikastolak eta OIartzungo Udalak Udal Ikastola Partzuergoa sortu zuten. Egitura irekikoa, OUIParen estatutuetan jasotzen den bezala, sorreratik aukera dago nahi duen entitate edo erakundea OUIPeratuz batzeko.

Bestalde, Alkateak azpimarratu du erreferentzia dela herrian, 0-2 urte arteko OIartzungo hezkuntza proiektu bakarra eta batua dela. Edozein izanda ere, 2 edo 3 urtetik aurrera haurra matrikulatzeko gurasoek aukeratutako ikastetxea.

Oiartzungo familien bilgune nagusietako bat dela dio Alkateak, azken hiru hamarkadetan milaka haur eta familia pasa direla bertatik. Hezkuntza proiektu sendoa, pedagogoez gozaturik, 0-3 zikloan jardun du 30 urtez OUIPa, eta Oiartzunen oso harrera ona izan duela adierazten du.

Erreferentia izan da EAEan eta baita EAETik kanpo ere. Euskara ardatz izanik, euskaraz bizi da, kulturartekotasuna zaintzen du, euskalkia eta herriko ohiturak jardun pedagogikoan integratzen ditu. Zaintzaren ikuspegitik funtsezko zerbitzua dela azpimarratu du Alkateak. Zentro pedagogiko bat den arren, ez da gutxietsi behar 0-3 bitarteko haurren zaintzan egiten duen ekarpena. Ratio eta ordutegi orokorrak araututa dauden arren, malgutasunerako aukera ematen duen zentroa dela eta horri eustea funtsezkoa dela dio Alkateak.

Herrian zaintzarako kalitatezko zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak ematen dituela gehitu du Alkateak. Jangela propioa duela dio, Kilometro 0 produktuekin ekoiztutako kalitatezko otorduak eskaintzen dituela, bertako sukaldari eta sukaldarien eguneroko lanari esker. Are gehiago, sukaldea proiektu pedagogikoaren parte dela. Haur guztiek otordu berdina jaten dute, mahai bueltan eta une hori ere heziketarako eguneroko momentu inportantea dela azpimarratu nahi izan du.

Proiektu profesionala eta eraldatzailea dela jarraitu du esaten Alkateak. Orain hiru hamarkada hartutako erabakiak profesional talde sendo batek hartutakoak izan zirela. Sinergien baturak hezkuntza proiektu berritzaile eta eraldatzailea ekarri dio herriari, eta adituen bisita ugari jasotzen du Euskal Herritik zein Europatik. OUIPa herriaren parte da. Ibilbide luzea du egina. Zilegitasun eta onarpen osoa ditu. Ezin ukatu daitekeen proiektua da, eztabaidaezina. 2026ko urtarrilean, familiei zuzendutako galdetegiaren emaitzak argiak dira. Familia oiartzuarrek oso balorazio ona egiten dute OUIParen proiektuaz eta eskaintzen dituen zerbitzu eta azpiegiturez. Tokikoa den eta unean uneko beharrak identifikatzeko erraztasun eta ahalmena duen proiektua da eta horrek gertutasuna eta arreta zuzena bermatuko die, OUIPko langile zein familiei.

2023ko irailetik, doakoa den zerbitzua dela aldarrikatu du Alkateak eta azpimarratu nahi izan du Hezkuntza Sailaren eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren elkarlanak ekarpen sozial garrantzitsua ekarriko lukeela. Hezkuntza Sailak proiektua garatzeko ezinbesteko bideragarritasuna bermatuko luke. Administrazio kontseiluko kide izanik, bere erabakitzeko ahalmena baliatuz pedagogia zein kudeaketa irizpide berriak txertatzeko aukera ere izango luke. Udala aldiz, herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea denez, Udalak unean uneko herriko beharrak detektatzeko hurbileko begirada bermatuko lioke proiektuari. Baita aurrekusi ezinak izan daitezkeen beharrak asetzeko, malgutasun eta azkartasunaz baliatuz.

Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenak eta baliabideak guztiz osagarriak dira eta elkarlana aukera paregabea izan daiteke herritarren beharrak asetzeko kalitatezko zerbitzua egikartzeko edo proiektu honekin aurrera jarraitzeko. Orain arte eskaini ditugulako hain zuzen ere kalitatezko zerbitzu horiek. Erakundeen arteko harreman bide iraunkorrak sortzea ezinbestekoa izango da hezkuntza erronkei elkarrekin erantzuteko. Gero eta indar handiagoa du herritarrak hezteko ardura partekatua denaren ideiak. Horretan sinisten du Oiartzungo Udalak eta herriak horretatik abiatzen dira Eskola eta Herria elkarrekin jarduten duten bi esparru direla esatean. Batak zein besteak elkarren beharra dute. Arnas luzeko proiektu estrategikoa da OUIPa, erreferentia eta zilegitasun osoa duena. Haurreskolak Partzuergoa bere parte izango lukeen OUIPren etapa berria ilusio bereziz eta propioa izatearen gogoz biziko litzateke Oiartzunen.

Era berean, une hau historikotzat hartzen da, hainbeste urtez ezinikusi iturri izan den ikastetxeen arteko lehia gainditu eta herrian hezkuntza proiektu bateratu bat sortzeko benetako aukerak ikusten baitira,

etorkizuneko bide baten hazia izan daitekeela dio Alkateak. Hain zuzen ere gaur egungo EAEko hezkuntza sisteman dagoen gatazka edo aurrera egin ezina gainditu eta panorama berri batera eramango gintuzkeena, Oiartzuar guztien mesedetarako. Udala, Haurtzaro Ikastola eta Hezkuntza Saila batuko lituzkeen entitatea elkartzeko gune erreala litzateke, herrian arnas gune bat bilakatuz..

Laburbilduz, udalen hezkuntza eskumenak zein diren garbi jasota dago indarrean den legerian. Hala ere, tokian toki gero eta gehiago dira hezkuntza komunitatearekin lankidetzan aritzeko esparruak zabaltzen ari diren udalerrriak. Udalak dira herritarrengandik gertuen dauden instituzioak eta ondorioz, erronka lokalak ondoen diagnostikatu eta horiei aurre egiteko esku-hartze gaitasun handi eta eraginkorrena izan dezaketenak. Finean, herritarren premiak ondoen ezagutu ditzaketenak eta Hezkuntza Sailak aldiz, bideragarritasunerako giltza du.

Guzti hau kontuan hartuta udal batzari honako akordio hau har dezan proposatzen zaio.

Bakarra: Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailari elkarlana proposatzea eta irtenbide desberdinak jorratzea honako aukeretan oinarrituta.

Lehenengoa: 2026ko otsailean Oiartzungo Udalak Hezkuntza Sailari proposatzen dio 2026-2027ko Haurreskolak Partzuergoa Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan sartzea. Oiartzungo herriak 30 urtean garatutako erreferentziatzko proiektua garai berrietara eraldatzeko. Tokiko Erakunde Euskadiko 2/2016 Legean jasota dagoenez, udalak dira herritarrengandik gertuen dauden erakunde publikoak. Zentzu horretan, udalak unean uneko herriko beharrak detektatzeko hurbileko begirada bermatuko lioke proiektuari. Eta Hezkuntza Sailak proiektua garatzeko ezinbesteko bideragarritasuna.

Oiartzungo Udalak esku luzatzen dio Hezkuntza Sailari kalitatezko herri hezkuntza proiektu bat elkarlanean garatzeko.

Bigarren aukera: Oiartzungo Udalak adierazten du, erakunde publiko bat izanik, hala dagokion arduratik eta betekizunetik prestutasun osoa duela OUIParen bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, egon daitezkeen aukera guztiak lantzeko Hezkuntza Sailarekin. Bere lehentasuna lehen puntuan aditzera emandakoa izanik, 2026-2027 ikasturterako OIUP Haurreskolak Partzuergoan sartzeko aukera baztertu gabe.

EAJ/PNVko Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du. Hau da adierazitakoa:

“ Lehenik eta behin gauza bat argi esan nahi dugu: gure taldeak ez du inoiz zalantzan jarri Urmendik ematen duen zerbitzua. Badakigu ondo funtzionatzen duela, familiak gustura daudela eta bertako langileek lan bikaina egiten dutela. Hori ez da eztabaida.

Benetako kontua da nola kudeatu den bere etorkizuna. Hau prozesu administratibo bat da, eta horrelako prozesuek argitasuna, planifikazioa eta garaiz hartutako erabakiak eskatzen dituzte.

Eta horretarako gogorarazi nahi dugu: duela ia urtebete mozio bat ekarri genuela Udalbatza honetara, eta aktek hala jasotzen dute, non argi adierazi genuen haur hezkuntzan sistema publiko, unibertsal, doako eta kalitatezkoa indartu behar dela. Ez dugu gaur asmatu. Orduan esan genuen, eta gaur ere berdin pentsatzen dugu. Gure jarrera ez da momentukoa; denboran zehar mantendu dugun jarrera koherentea da.

Gaurko egoera ez da kasualitatea. Gaia lantzeko, aztertzeko eta erabakiak lasaitasunez hartze denbora egon zen, baina erabaki argirik gabe epea igaro zen. Horrelakoetan ziurgabetasuna sortzen da, eta ziurgabetasun hori familiek eta langileek bizitzen ari dira.

Haiei bereziki adierazi nahi diegu. Ulertzen dugula kezkatuta egotea. Normala da. Baina gauzak argi esatea ere beharrezkoa da: ez dago txostenik esaten duenik lanpostuak arriskuan daudenik edo baldintzak okertuko direnik.

Aitzitik, datu objektiboetara joanda, kontrakoa ikusten da. Hezkuntza Saileko baldintzak aplikatuz gero, soldatak urtean 35.910 euro ingurukoak lirateke; gaur egungo akordioan, berriz, 28.634 euro ingurukoak dira. Hau da, urtean 7.000 euro baino gehiagoko aldea. Lanorduetan ere alde handia dago: Haurreskola partzuergoan urteko 1.470 ordu dira; gaur egungo egoeran, berriz, 1.622,5 ordu. Hau da, 150 ordu baino gehiagoko aldea urtean. Horrek esan nahi du baldintzak ez liratekeela okertuko, alderantziz baizik: lan-baldintzak hobekak izan litezke eta horrek zuzenean eragingo luke umeei ematen zaien arretan ere, langile gehiago egoteko aukera sortuz.

Horregatik, ez dugu egokia ikusten beldurra zabaltzea datuek kontrakoa erakusten dutenean.

Gu ez gaude hemen beldurra sortzeko. Argitasuna eskatzeko eta eskaintzeko gaude.

Erabakia udal gobernuaren ardura da. Gobernatzea garaiz erabakitzea da, ez epeak pasatzen uztea eta ondoren zalantzak herritarren gain uztea.

Beste gauza bat ere argitu nahi dugu, gaizki ulertzerik egon ez dadin. Gure hezkuntza sisteman haur hezkuntza etapaka antolatzen da. Haurreskola Partzuergo publikoak 0-2 tarte hartzen du, eta bi urteko gela hezkuntza sistemaren barruan dago jada, sare publikoan bermatuta. Oiartzunen gaur egun bi urteko gela eskola publikoak bermatzen du, eta gainera badago datorren ikasturterako Haurtzaro Ikastolak bi urteko gela eskaintzeko egindako eskaera. Horrek erakusten du sistemak baduela gaitasuna eskaintza bermatzeko.

Beraz, hemen ez da zerbitzurik kentzen. Zerbitzua antolatzen ari da, beste herri askotan egiten den bezala, administrazio-aukeren barruan.

Zerbitzuak etorkizuna izan dezan, beharrezkoa da egitura argi eta egonkor baten barruan kokatzea. Bestela, egitura edo finantzaketa gainjarriak egongo balira, araudiaren aurkako egoerak sor litezke, eta horrek bai jar lezake zerbitzua arriskuan. Hau ez da iritzi politiko bat; antolaketa administratiboaren oinarritzko printzipioa da.

Gure jarrera garbia da: zerbitzu publikoa, egonkorra, doakoa eta bermeduna nahi dugu. Eta horregatik uste dugu erabaki hauek planifikazioarekin, gardentasunez eta segurtasun juridikoz hartu behar direla.

Ez gaude eztabaida ideologiko batean. Kudeaketa kontu baten aurrean gaude. Eta kudeaketa kontuak daudenean, konponbidea ardura da, gardentasuna da eta erabaki argiak dira.

Jokoan ez dago sigla bat. Jokoan Oiartzungo familientzat funtsezkoa den zerbitzu bat dago.

Eta amaitzeko: gobernatzea ez da presioari erantzutea. Gobernatzea presioa egon aurretik arduraz erabakitzea da.”

Janire Mitxelena zinegotziak amaitu ondoren, Urmendiko langileen ordezkariak hitza hartzen du ondorengoa esanez:

“Arratsalde on. Urmendiko langileak Udalbatza honetara etorri gara gure ahotsa entzun dadin. 1999an sortua, 27 urteko ibilbidea du proiektu honek, urte hauetan guztietan 3500 gora haurrei kalitateko hezkuntza eta zaintza eskaini dizkiegu. Gertutasunean, konfiantzan eta jarraikortasunean oinarritua. Horren adierazle da herrian eta herritik kanpo hain ondo baloratua egotea. Horren adibide, urtero

Belgikatik, Ondarroatik bisitara etortzen zaizkigun ikasleak. Gure herrikoak izan gabe praktikak egitera datozkigun hainbat eta hainbat ikasle. Vic-eko unibertsitateko errekonozimendua. Irakasle eskoletan gure proiektuaren berri ematea. Ez da kasualitatea, urteetako lanaren emaitza baizik.

2024an Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen EAEko udal haur-eskolak mantentzeko diru ekarpenik ez zuela egingo aurrerantzean. Erabaki horrek udalak oso ataka zailean jarri zituen. Eta gehienek kasuan Haurreskolak Partzuergoa sare publikoan sartzera beste aukerarik ez dute izan. Noski, 0-2 etapan soilik. Honek praktikan eta Oiartzunen kasuan 0-3 proiektu propio eta sukaldea desegitea dakar. Guk argi esan nahi dugu erabaki hau ez dela pedagogikoa, politikoa baizik eta helburua dela hezkuntza sistema erabat zentralizatua izatea. Tokiko proiektuak errefusatu eta erabat bazterrean utziz hain zaugarria den adinaren benetako beharrak.

0-3 etapa bizitzako zimentuak finkatzen diren garaia da. Zaintza eta hezkuntza da. Eskutik doazen bi kontzeptu. Garapen emozionala, hizkuntza, harremanak, segurtasuna. Haur bakoitzaren erritmoa eta beharrak errespetatzea. Eta hori guztia egiten dugu Oiartzunen. Bertako errealitateara egokituta. Hori da hain zuzen, Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren ezaugarri eta balio garrantzitsuenetarikoa. 0-3 urte bitarteko zikloa bere horretan ulertzea eta egunerokoan gauzatzea. Premia horiek guztiak eta aipatu ibilbidea kalitatez aseta egoteko bermea dugun proiektu pedagogiko sendoa. Eta horri lotuta, benetan lotsagarriak iruditzen zaizkigu, etxez-etxez banatu dituzuen aldizkarian esandako hitzak:

“Haurreskolen kontsoltzioan sartzea ezinbestekoa da kalitatea eta finantzaketa egokia bermatzeko”. Talde jeltzaleak uste du zerbitzu publikoaren defentsak lehentasuna izan behar duela eta ez dela atzerapausorik onartu behar. Benetan mingarria da bereziki kalitateari buruz egiten duzuen aipamena. Eta puntu honetan eskatu nahi dizuegu kanpotik argazkiak egiteari utzi eta gonbidatzen zaituztegu gure haur-eskolako proiektu pedagogikoa bertatik bertara ezagutzea. Urmendiko ateak zabalik dituzue.

Bestetik, aipatzen duzue baita ere zerbitzu publikoaren defentsak lehentasuna izan behar duela. Hori da guk aldarrikatzen duguna, nola ez. Urmendi kalitatezko udal zerbitzu publiko bat delako. Horregatik, elkarrizketa, denbora eta alternatibak aztertzeke unea da eta ez maila honetako hezkuntza proiektu bat galtzekoa.

Proiektuaren beraren etorkizunaz kezka izateaz gain, gure lan etorkizuna ere kolokan ikusten dugu. Hemezortzi langile finko gara. Eta finko izan ez arren, azken urteetan gurekin lanean dabilzan hiruzpalau ere bai. Dena dago airean, eta egoera ziur gabea da erabat. 27 urtean daukagun onena eman diogu haur-eskolari. Eta herriari. Mimo eta dedikazio handiz eraiki dugu. Eta momentu honetan, desagertzeko bidean gaude. Herriari entzuten dion gobernua behar du Oiartzunek. Hori ere badiozue, badagokizuen ardura politikotik entzun herriari. Eskerrik asko.“

Urmendiko langileak amaitu ondoren, "Urmendi beti herri 0-3 bizirik" herri plataformako kideek hitzar hartzen dute.

Lehen kideak:

“Arratsalde on, gaur arratsaldean Oiartzungo plazan aurkeztu dugun "Urmendi beti herri 0-3 bizirik" herri plataformako kideak gara Oihane eta Ani. Eta orain guk hartuko dugu hitza. Gure egunerokoa astindu duen berriaren aferaren aurrean adierazpen kolektiboa plazaratzeko. Herriaren ondare kuttuna da Urmendi haur-eskola. Ikasle ohi bezala, guraso, ahaide eta herritar bezala, harrotasun handiz bizi dugu Urmendiko hezitzaileek urteetan zehar testuinguruarekin hartu-emanetan poliki-poliki ehuntzen joan diren proiektuaren parte izatea.”

Bigarren kideak:

“Larria da Urmendiko hezkuntza komunitatea osatzen dugun herritarron ikuspegitik Eusko Jaurlaritzaren jokaldi politiko hau. Publikotasunaren defentsan herritarron beharretatik aldentzen den publikotasun eta kudeaketa eredua ezarri nahi duelako. Izan ere, Urmendi altxorra dela diogu, eta ez bakarrik aurrera daraman proiektu pedagogikoagatik, baita kudeaketa ereduagatik ere. Udalak, hau da, herritarrengandik gertuen dagoen instituzio publikoak kudeatzen duelako proiektua hezkuntza komunitatearekin batera. Eta guk, herritarrok urte luzez ikusi dugu gertuen dugun instituzio publikoarekin elkarlanean jarduteak zein onura dituen. Ez gara ezer berria sortzeaz ari, ezin hobeto funtzionatzen duen kudeaketa eredu batez ari bait gara. Zertarako zentralizatu kudeaketa erabat Eibarko Haurreskolen Partzuergoaren egoitzan, jadanik hemen bertan, herritik eta herriarentzat, 27 urteko ibilbide eta praktika arrakastatsu baten jabe bagara.”

Lehen kideak:

“Ez gara errepikatzeaz aspertuko. Lehen haurtzaroaren ezaugarriak eta garrantzia jendarteratzen lan nekaezina egin du Urmendik bere ibilbide luzean. Bizitzako lehen zikloaren duintasuna, egunez egun, umiltasun handiz defendatu duen proiektu pedagogikoa da. Erakutsiz, 0-3 urteen garapen zikloa identitate propioa duen urrezko bizi-etapa dela. Berariazko zainketa eta akonpainamendua eskaintzen dituen haurra osasuntsu eta oso egoki garatzeko.”

Bigarren kideak:

“Horrez gain, elkarbizitzaren eta ongizate sozialaren alde izugarritzko ekarpena egiten dugu Oiartzunen. Pertsonak eta zaintza, haien logika eta jardunaren erdigunean jartzea egiazki lortuz. Eta hori, hain zuzen ere, gure publikotasun ereduan gakoa iruditzen zaigu. Gure publikotasun eredua ez baitago korporazio handien mesedera begira. Gure publikotasun ereduak ez baitu ekonomia pertsonen ongizatearen gainean lehenesten. Gure publikotasun eredua komunitarioa da eta Urmendi bezalako azpiegitura sozialak sustatu eta politiken erdigunean kokatu behar direla aldarrikatzen du. Gure publikotasun ereduak bizitzak eta pertsonak lehenetsi nahi ditu politika neoliberalen aurrean.”

Lehen kideak:

“Izan ere, Urmendi proiektuak guzti hori barne biltzen du. Esperantza ereiten duen proiektua da herritarrontzat, komunitatea eraikitzen duena. Familiak emozionalki lagunduz eta zaintza eta heziketa praktiketan ahaldunduz. Gainera, haur bakoitzak gerora egingo duen hezkuntza proiektuaren ibilbidearen gainetik, Urmendi familia guztien aterpea da.”

Bigarren kideak:

“Kalitate pedagogiko hau ahalbidetu du, dudarik gabe, herri proiektu lokal bezala izan duen autonomiak eta garapenak, ekipo pedagogikoaren kohesioak eta jarraikortasunak, eta nola ez, kalitatezko zerbitzu bat eskaintzeko Urmendiko profesionalek erakutsi duten konpromisoak.”

Lehen kideak:

“Garapen honek guztiak, Eusko Jaurlaritzarentzat ere, eredugarria beharko luke izan gure ustez. Eta aztertu beharko lukete zergatik den hain arrakastatsua proiektua, beste herri eta txoko batzuetara zabaldua ahal izateko eta hezkuntza esparrua aberasteko. Horregatik ez dugu ulertzen alde bakarrez eta inposaketa bidez, udal haur-eskolari dirulaguntzarik ez emateko erabakia hartu izana. Horrek halako

harribitxia haustea dakarrelako, zentralizazioa eta homogeneousazioa bultzatuz, eta etorkizuna arriskuan jarritz.

Bigarren kideak:

“Hemen gauden guztiok ibilbide oparora desio diogu aurrerantzean ere Urmendi 0-3 proiektuari, eta espero dugu bestelako elkarrizketa eta adostasun bat bideratzeko maila politikoa erakutsiko duzuela hemen zaudeten EH Bilduko eta EAJko zinegotziek. Heldu diezaiozun afera honi elkarrekin, Hezkuntza Sailaren aurrean herri gisa, herritarrontzat onena den publikotasun eredu propioa, mahai gainean jartzeko. Urmendi beti herri, Urmendi aurrera, Urmendiko langileekin elkartasuna!”

Herritar batek hitza hartzen du, honakoa adieraziz:

“Langileen ziurgabetasunari buruzko galdera bat. Beste holako prozesuak egon izan direnean, bermatzen da eta langile finkoak bihurtzen dira, laboral finkoak deitzen zaien. Eta funtzionarioen eskubideen gainetik daude. Orduan ez dakidana da, Hezkuntza Sailak hori bermatu duen, batez ere langileen segurtasuna bermatua ahal izateko.”

Egindako galderari Alkateak honela erantzuten dio:

“Gauza da, lehen esandakoari jarraikiz, egindako bilera batean esan zitzaigun atzean hamar edo hamaika langileren subrogazioa bideratuko lukeela Hezkuntza Sailak. Baina esan den bezala, hemen zortzi langile dira (hiru sukaldari eta bost hezitzaile) gehi beste hiruzpalau ordezkapenean eta horrela ibiltzen direnak; horiek ez dira finkoak, baina bai ari garela hemezortzi langilez hitz egiten, eta Hezkuntza Sailak orain arte esandakoaren arabera hamaika langile gehienez jota subrogatuko dituela jakinarazi digu. Ez daukagu horren jakinarazpen ofizialik. Espero dut datorren asteetan zerbait gehiago argitzea.

Bigarren galdera bat egiten du herritarrak:

“Eta momentu batean Oiarzungo proposamena aterako ez balitz, zer aurreikusten udalak?”

Alkateak:

“Negoziatu beharko dugu Hezkuntza Sailarekin, ea noraino iristen garen. Nahi baduzue berriz irakurriko dut proposamena.”

Herritarrak berriz galdetzen dio:

“Proposamen zehatzik eramaten da, honek ez badu aurrera egiten?”

Alkateak:

“Heldu beharko zaio, nolabait, handik edo hemendik, partzuergoaren bideragarritasun ekonomikoari, eta Hezkuntza Saila ez baldin bada gurean sartzen, orduan guk sartu beharko dugu beraienean, baina partzuergo bezala, hori da gure proposamena, eta horrekin goaz Hezkuntza sailera eta ikusiko dugu zerrekin gatozen bueltan. Ulertuta Oiarzun dela herri bakarra hau planteatu dezakeena, duela 30 urte hartu zen erabaki bati esker. Beste udalek ezin izan dute hau planteatu eta batzuk bideragarritasunarengatik, Usurbilek, Aretxabaletak eta Ordiziak, baina ez, Barakaldok adibidez,

zentzuz, ez dute bat egin honekin, proposamen honekin. Batzuk ez dute beste aukerarik eduki azkenean, baina guk badaukagu, eta hori da guk proposatzen dugun abantaila, eta horretarako gaude zabalik, eta ea Hezkuntza Sailak ere bere aldetik lanerako gogoia adierazten duen.”

Herritarrek beste galdera bat egiten dio:

“Barakaldon zer gertatu da?”

Alkateak:

“Jakin dugunez, Barakaldoko udalak erabaki du jarraitzea bere 0-3 haurreskolarekin eta horreraino ze ez dakit gehiago, titularra da eta ez dakit gehiago. Eta nahikoa badaukat Oartzunekin, barkatuko didazu, baina horrekin esan nahi nuen, udal denek ez dutela bat egin Haurreskolak Patzuergoan sartzearen erabakiarekin, zein diren arrazoiak ez dakit. Bueno, horrenbestez, eskertu nahiko nuke herritarren parte-hartzea, eta zuen hitzartzeak ere bai. Entzun ditugu langileen ahotsak, entzun ditugu familien ahotsak eta entzun dugu oposizioa ere. Guk ulertzen dugu oposizioak bere papera duela eta ikuspegi demokratiko batetik ekarpen onak egin ditzakeela. Baina oposizioak bere papera duen bezala, ba guk gurea dugu. Eta udal gobernu taldeak, proposamen berritzaileak eta serioak egiten ditu herritarren momentuko interesei erantzunez eta batez ere etorkizunari erantzuteko.

Gaurko erabakiekin biharko Oartzun eraikitzen ari gara. Duela 30 urte gaurko egoerara ekarri gaituzten erabakiak hartu ziren bezala. Urmendi 30 urteko legatua duen altxor bat da. Herri proiektu bat, galdu nahi ez duguna. Ikuspegi pedagogikotik, kohesio sozialetik eta autonomia lokalaren ikuspegitik. Eta merezi du eta eskatzen du gogoeta sakonak egitea, titularretatik aldentzea, presak alde batera uztea eta errazkerietan ez erortzea.

Honek denbora eskatzen du. Urte bat joan da bai, eta ez gara esku hutsik, eta ez gara eskuak gurutzatuta egon, lanean egon gara eta jarraitzen dugu eta jarraituko dugu. Honek eskatzen du denbora, ezagutzea egoera zein den eta borondatea bilatzea. Gure partetik, zuen partetik eta Hezkuntza Sailaren partetik. Benetan herritarren eta familien beharrei erantzun nahi badiegu, utz ditzagun titularrek alde batera, entzun ditzagun gaur Udaltzaria honetan esan direnak. Esku luzatzen diegu udal gobernu taldeak bai oposizioari eta bai Hezkuntza Sailari, proposamen hau aztertzea, guztion artean Oartzungo herrian hain babestua den herri proiektu eder honi, herritik eta herriarentzat jarraipena emateko. Eta honenbestez, beste inork hitzik hartu nahi ez badu behintzat, bozketara pasako gara, eta gero hurrengo gaira.”

Janire Mitxelena EAJ/PNV-ko zinegotziak hitza hartzen du:

“Besterik gabe komentatzeko, guk badakigula bi bilera izan zirela. Bat irailean eta bestea azaroan. Batean erreflexio bat egin behar zela herrian komentatu zela udal gobernutik, eta bestean ez zela inolako erantzunik eman. Hezkuntzatik urtarrilak 31 jarri zen tope bezala erantzun bat emateko hau da, jakiteko gehituko zen ala ez. Ez zuen erantzunik jaso eta azkeneko momentuko proposamen honekin joan zen.”

Alkateak:

“Urtebetez egon gara gai honekin lanean herrian, eta urtarrilaren 30eko epe hori baino lehenago proposamen hau helarazi zitzaion Hezkuntza Sailari.”

Janire Mitxelena EAJ/PNV-ko zinegotziak:

“Baina momentuan ez zen erabakirik hartu, ez baiezkoa ez ezezkoa.”

Beraz esandako guztia kontutan hartuta, Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026eko otsailaren 19an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz Oiarzungo Udalak Hezkuntza Sailari elkarlana proposatzea eta irtenbide desberdinak jorratzearen erabakia hartu du.

### Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
Alde	9	9 EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	4	4 EAJ/PNV

Laugarren gaiarekin jarraitu aurretik, Alkateak aukera ematen die nahi izanez gero bertaratutako herritarrei aretotik ateratzeko.

-IV-

OIARTZUNGO UDALA GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.REN KIDE IZATEKO ERABAKIA ETA PARTIZIPAZIOEN EROSKETA, ETA BITARTEKO PROPIOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA

### AURREKARIAK

Udal idazkariak egindako txostenaren arabera, udal honen 2010eko maiatzaren 4ko udalbatzak hartutako akordioaren bitartez, behin betiko onartu zen bere garaian San Markoseko Mankomunitatearen esku utzitako hondakinen bilketa, tratamendu eta ustiapen kudeaketa berreskuratzea Oiarzungo Udalak egikaritu ditzan: alde batetik, hasiera batean, hiri-hondakinen atez ateko gaikako bilketa zerbitzua zeharka, egun hiri-hondakinen bilketa zerbitzuaren kudeaketa esleitua duen enpresaren bitartez; bestetik, hondakin horien tratamendu zerbitzua zuzenean Hernani eta Usurbilgo udalekin bat eratuko duen nortasun-juridiko propiodun entitatearen bidez, eta bigarren fase batean, industria poligonoetan.

Ebazpena egikaritzeko 2010eko maiatzaren 7an Oiarzungo alkateak, Hernani eta Usurbilgoarekin batera, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. izeneko Erantzukizun Mugatuko Merkataritza Sozietatea sortu zuten. Geroztik, 2014ko ekainaren 25en sozietatetik ateratzea erabaki zuen.

Bestalde, udalerriko eremu industrialei dagokionez, bertan sortutako udal-hondakinen kudeaketa udal eskumenekoa izan arren, 2004ko uztailaren 1ean Oiarzungo Udal Osoak “Udalerrri honetako industria poligonoetan udal-hondakinak edo horiekiko asimilagarriak biltzeko betebeharrak San Markoseko Mankomunitateari transferitzea. Halaber, Mankomunitateak legez xedatzen dituen zergak kobratzea” erabaki zuen. Geroztik horrela egin du San Markoseko Mankomunitateak entitate horrek onarturiko tasen Ordenantzaren arabera, egungo tasa 2017ko Ordenantzan ezarritakoa delarik.

2025eko azaroan EAJ eta EH Bilduko udal ordezkariak hondakinen kudeaketa hobetzeko sinatutako akordioan 4 neurri zehatz adostu ziren, tartean industria gunetako hondakinen bilketa eta kudeaketa udalak berreskuratu eta optimizatzeko neurriak hartzea.

Gauzak horrela, udal mendi eta ingurumen teknikariak egindako txostenaren arabera, aipatu eremu industrialen egoera ikusirik, udal honen zerbitzu teknikoek 2024ko ekainean Oiartzungo poligonoetan hondakinen bilketari buruzko azterketa teknikoa abiatu zuten, landa-lana egiteko langile baten bitartez, eta honako ondorioak antzeman ziren:

- Oraingo hondakinen kudeaketa nabarmen hobetu daitekeela. Birziklagarriak diren 131.356 kilo hondakin gehiago gaika jasotzea ahalbideratuko lukeela, eta bestalde zabortegira edo errauskailura bideratzen diren 396.910 kilo hondakin kopurua murriztuko luke ingurumena zainduz eta udalak jaso beharreko diru-sarrerak handituz nahiz gastuak murriztuz.
- Bilketa eraginkorra modu efizientean egiteko aukera dagoela, ekoizle txikien zergak zainduz, sortzearen araberako ordainketa justuagoa aplikatuz eta erabaki irmoak hartuz gero.
- Udalak herriguneko hiri-hondakinen gaikako bilketa zerbitzua eta industria gunetakoa uztartzeko aukera daukala, ahalik eta sinergia gehienak aprobetxatuz eta bilketa-eraginkortasuna areagotuz.

Ondorioz horien irakurketatik abiatuta, ondoren, “industria-poligonoetako hondakinen kudeaketa eraginkorra burutzeko eta sortzearen araberako ordainketa optimizatzeko azterketa” enkargatu zion GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.ri, espedientea jasota gelditu den moduan. Azterketaren ondorioak dira zerbitzua hobetu litekeela birziklapena hobetuz, zabortegira eta errauskailura ematen den frakzioa gutxituz eta zergak, legez ezarrita dagoen bezala, sortzearen araberako ordainketaren bidez antolatuz. Gainera, bideragarritasun ekonomikoa bermatuz eman litekeela San Markoseko Mankomunitateak 2026ko otsailaren 2an argitaratu dituen tasa berriaren oso antzekoak aplikatuta (zentimo baten gora behera).

Bere aldetik, aipatu txostenak dio:

- Ingurumenari dagokionez, udalak Oiartzungo industria-poligonoetako hondakinen kudeaketa berreskuratzen badu, hiri-hondakinen kudeaketa eraginkorragoa egin ahal izango luke. Esparru honetan sortzen diren hiri-hondakinak murriztu eta gehiago birziklatzea lortuko luke, gaikako bilketa %65etik gutxienez %80ra pasatzea ahalbideratuz, hots, birziklagarriak diren hondakinak gaikako bilketaren zirkuituan sartuz, zabortegira errefus geldo gutxiago bideratuz eta erraustegira errefusa gutxiago eramanez.
- Industria-poligonoetako hondakinak kudeatzeko, gaur egun, San Marko Mankomunitateak 2 hondakin-hezitzaile, soilik, ditu Mankomunitateko esparru osorako. Bideragarritasun azterketa txostenean, aldiz, Oiartzungo industria-poligonoetarako hondakin-hezitzaile propio bat proposatzen eta ekonomikoki gastuen artean sartzen da.
- Bideragarritasun ekonomikoari dagokionez, goizeko bilketa lehenesten denez, eta bilketa zerbitzua ekonomikoki bideragarria izan dadin, zergaren zati finkoaren atalean m<sup>2</sup> bakoitzeko 0,01 €-ko igoera proposatzen da, hau da, San Marko Mankomunitateak aplikatzen duen 0,22 €/m<sup>2</sup> izan beharrean, 0,23 €/m<sup>2</sup> aplikatzea, modu horretan emaitza ekonomikoa positiboa ateratzen delako.
- Gaur egun, udalak ez dauka baliabide nahikorik, hau da, udalak dituen giza baliabide eta materialekin ezingo luke zerbitzu hori eskaini, horregatik, ezinbestekoa izan da zerbitzua kudeatzeko formula desberdinak aztertzea eta egokiena, efizienteena eta jasangarriena, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. bitarteko propioa izendatu eta berari enkargua egitea izan da.

- Oiartzungo udalerriko industria-poligonoetako hiri-hondakinen bilketa zerbitzua emateko ondorengo Ordenantza Fiskaleko tasak aplikatzea proposatzen da:
  - Lokal edo establezimendu bakoitzaren metro kuadro bakoitzeko: 0,23 €/m<sup>2</sup>.
  - Gainontzeko tarifak San Marko Mankomunitateak 2026ko apirilaren 1etik aurrera indarrean izango dituenak (GAO 2026ko otsailaren 2ko 20. Zkia.).

Kontuan izan behar da gainera, hondakin tasei buruzko Europako zuzentarauaren helburua da zaborren tasak kudeaketa kostu errearen (bilketa, garraioa, tratamendua) % 100 estaltzea, "kutsatzen duenak ordaindu" printzipioa aplikatuz, hondakinen murrizketa eta birziklapena sustatzeko eta Europako birziklapen helburuak betetzeko (%55 2025ean, %65 2035ean). Hori Hondakinei buruzko 7/2022 Legearekin inplementatzen da estatuan, zeinak udalerriak tasa espezifiko eta bereizi bat ezartzera behartzen dituen, "sorkuntza bidezko ordainketa" sistemak ahalbidetuz, non gehien kutsatzen duenak gehien ordaintzen duen, pizgarri ekonomikoak ingurumen helburuekin lerrokatzeko.

Gainera, kudeatzaile pribatuekin kudeatu beharreko hondakin industrialak hiri-hondakinen kudeaketa-zirkuitutik kanpora atera behar dira, hain zuzen lege ezberdinek (7/2022 Legea hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, 646/2020 hondakinak zabortegietan deuseztearaz arautzen duen Errege Dekretua, e.a.) horrela kudeatzea agintzen dutelako. Era berean, Oiartzungo Udalak, 2018/851 Hondakinen inguruko Europar Direktibak gomendatu bezala, hondakin sorrerak eta hondakinen kudeaketak eragindako inpaktu negatiboak prebenitzen edo/eta murrizten eta Ingurumena eta giza-osasuna babesten jarraitu nahi du.

GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. Sozietatearen helburuak honakoak dira: "Sozietatearen helburua bat izango da: hiri hondakinen eta asimilagarrien gaikako bilketa, kudeaketa, ustiaketa eta tratamendua, hala badagokio, gai horri buruz indarrean dauden lege xedapenak eta Europakoak betetz, eta hondakinak gutxitzeko eta ahalik eta birziklatze maila altuenak lortzeko eta, hartara, arlo honetan indarrean dauden xedapenek diotena hobeto lortzeko helburua duten bilketa, kudeaketa eta tratamendu sistema bereziak hobetzeko moduak eta neurriak hedatzea."

Udal idazkariaren txostenari helduta, zerbitzu publikoaren kudeaketa emateko modua aukeratzera Toki Jaurbidearen oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikuluetan zein Euskadiko Toki Entitateen Legea onartzen duen 2/2016 Legearen 17. artikuluan, eta 7/1985 Legearen 85.2 artikuluan oinarrituta, udalek euren zerbitzu publikoak emateko modu desberdinak dituzte eta horien arteko bat, zuzeneko izaerarekin, entitate merkantila osatzearena da. Horretarako jasotako aholkularitza justifikatzen duen memoria idatzi beharko da, bertan zerbitzuaren kostuari buruzko txostenak eta jasotako laguntza tekniko jasoko dira, eta horien berri eman beharko da. Ondorio horietarako, tokiko kontu-hartzailearen txostena eskatuko da, eta hark planteatutako proposamenen finantza-iraunkortasuna baloratuko du, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Gauzak horrela, espedientean kudeaketa zuzena egiteko eta kudeaketa hori tokiko merkataritza-sozietatearen esku uzteko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen memoria ( 85.2 TAOL) jaso da.

Memoriaren osaketarako kontu-hartzaileak eta giza baliabideetako teknikariak txostena bana egin dute honelako aspektuak egiaztatzeko:

- 1.- Jasangarriago de eraginkorrago, errentagarritasuna eta inbertsioa berreskuratzearen ikuspuntutik
- 2.- GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.rekin zerbitzua ematea udalak langile propioekin edo toki-erakunde autonomoekin zerbitzua ematea baino jasangarriagoa eta eraginkorragoa dela.
- 3.- Aurrekontuaren egonkortasuna ez dela kaltetzen.

Zerbitzu publikoen kudeaketa sistema aukeratzeko diskrezionalitate teknikoaren adibide bat da, balorazio tekniko eta juridikoetan oinarritu behar dena, aipatutako jasangarritasun eta efizientzia printzipioek

gidatuta, ezagutza adituaren emaitza delako, horiek baitira erabakiaren oinarria eta balorazio politikorako tartea.

Bestalde, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. Oiartzungo Udalaren bitarteko propioa izendatzeko erabakia Sektore Publikoaren Araubide juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen 86.2 artikulua bitarteko propioa izendatzeko ezarritako baldintzak bete behar dituzenez, espedientean Giza Baliabidetako arduradunaren txostena jaso da eta bertan kontratazio publikoa baino aukera eraginkorragoa, jasagarria eta eraginkorra dela, errentagarritasun ekonomikoaren irizpideen ikuspuntutik, esaten da. Aldi berean, Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. artikulua ezarritako baldintza betetzen direla egiaztatzeko Memoria idatzi da, espedientean jasota dagoen eran.

Ondorioz, zerbitzuaren kudeaketa sistemari buruz idatzitako Memoria, zerbitzuaren bideragarritasunaren inguruko txosten teknikoa, bitarteko propioaren izaerari buruzko Memoria eta udal zerbitzuek idatzitako txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026eko otsailaren 19an emandako diktamenarekin adostasunean, Udaltzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

## AKORDIOA

Lehena.- Oiartzungo jarduera ekonomikoetako sailkapena duten eremuetan hiri hondakinen bilketa eta tratamenduaren kudeaketa hobetzeko helburuarekin, 2004 urtetik San Markoseko Mankomunitatearen esku zegoen, eremu industrialetako hiri-hondakinen bilketa eta kudeaketa berreskuratu eta kudeaketa zuzena egiteko erabakia hartzen da, udal zerbitzuek teknikoek egindako Memoria onartuz eta bertan jasotako baldintzak ezarriz.

Bigarrena.- Hiri-hondakinak jarduera ekonomikoetarako sailkapena duten eremuetan biltzeko zerbitzu publikoaren kudeaketa modu bezala zuzeneko izendatzea eta, Toki Jaurbidearen oinarriak onartzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85. artikulua aurreikusten dituen sistemen artean, izaera publikoko titulartasuna duen tokiko merkataritza sozietatea aukeratzea, hau da, GARBITANIA ZERO ZABOR S.L.

Hirugarrena.- Aipatu sozietatearen bidez eremu industrialetako hiri-hondakinen bilketa eta kudeaketa egin ahal izateko GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. ren partizipazioak erostea honako xehetasunarekin: 62 partizipazio 130.000 €ko balore errealekin, 2026ko udal aurrekontuan jasotako 0211.852.162.20.01 diru-atalaren kontura.

Laugarrena.- GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. Oiartzungo Udalaren bitarteko propioa izendatzea Sektore Publikoaren Jaurbidea onartzen duen 40/2015 Legearen 85 artikulua eta Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32 artikulua baldintzak betetzen dituelako.

Bostgarrena.- GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. Oiartzungo Udalaren bitarteko propioaren izendapena entitatearen estatutuetan jaso ondoren eta Kontratazio Plataforman argitaratu eta gero, udal honek Oiartzungo jarduera ekonomikoetako sailkapena duten eremuetan hondakinen bilketa eta tratamenduaren kudeaketa bere esku utzi ahal izateko, Oiartzungo hiri-hondakinen bilketa arautzen duen Ordenantza (99 zk. ko GAO 2023/05/24koa) puntualki aldatzeko prozedura martxan jartzea eta tramitatzea. Era berean, hiri-hondakinen bilketagatik tasa udal ordenantza fiskalaren sartzeko beharrezko tramitazioa egitea, zerbitzu teknikoen txostenean jasotako xehetasunekin.

Seigarrena.- GARBITANIA ZERO ZABOR S.L. ren Batzar Orokorrean eta Administrazio Kontseiluan Oiartzungo udalaren ordezkari gisa Joana Mendiboure izendatzea, eta ordezkari Olaia Lasa Olaziregi.

Alkateak hitza hartzen du eta ebazpen proposamena azaltzen du. Ondoren, EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du honakoa adieraziz.

“Lehenik eta behin, gauza bat argi utzi nahi dugu: gure taldeak bat egiten du hondakinen kudeaketa hobetzeko helburuarekin. Europako araudia zorrotzagoa da, eta udalok erantzun eraginkorrak eman behar ditugu. Horretan ez dago zalantzarik.

Baina gaur hemen ez gara zerbitzu tekniko puntual baten aurrean. Gaur erabaki estruktural baten aurrean gaude. Udalak 130.000 euroko ekarpena egingo luke Garbitanian sartzeko, eta horrek ez du soilik gaurko eragina; etorkizuneko konpromiso ekonomiko eta antolaketa-eredu bat ere badakar.

Eta erabaki estruktural bat den heinean, gure ustez, behar zuen azterketa konparatibo independente bat. Espedientean ez dago txostenik esaten duenik aukera hau beste alternatibak baino hobea dela. Ez dago konparaziorik, ez kostu-analisi zehatzik, ez eta urteko inpaktu ekonomikoaren simulaziorik ere.

Badakigu sartzea zenbat kostatzen den. Baina ez dakigu zehazki zenbat kostatuko zaion urtero udal honi. Eta hori ez da xehetasun bat. Diru publikoa konprometitzen dugunean, hori da galdera nagusia.

Gainera, partaidetzen balorazioari dagokionez ere, badira zalantza teknikoak. Balorazioa momentu ekonomikoaren arabera aldatzen bada, eta irizpide desberdinak aplikatzen badira udal bakoitzaren kasuan, orduan argi azaldu behar da zein den erabilitako irizpide objektiboa. Bestela, zaila da ulertzea zergatik den kopuru bat eta ez beste bat.

Are gehiago, badakigu beste udal batzuetan ere kostu errealarari buruzko eztabaidak egon direla eta urteko gastua aurreikusitakoa baino handiagoa izan dela salatu dela. Horrek erakusten du erabaki honek ez duela soilik hasierako ekarpen bat suposatzen, baizik eta etorkizuneko konpromiso ekonomiko bat ere bai.

Guk ez dugu helburua zalantzan jartzen. Hondakinen kudeaketa hobetu behar da, eta hori babesten dugu. Baina tresna aukeratzekoan, gardentasuna, konparazioa eta berme ekonomikoak behar dira.

Horregatik, gaur egun dugun informazioarekin, ezin dugu erabakia babestu. Horregatik gure botoa abstentzioa izango da. Abstentzioa ez da desentenditzea. Abstentzioa da berme gehiago eskatzea.

Erabaki hau estrukturala da, eta estrukturalak diren erabakiak oinarri sendoekin hartu behar dira.”

Alkatek hitza hartzen du. EAJ/PNV partiduak esandakoari erantzunez. Gai bat ondo landu badute honako hau izan dela dio Alkateak. Egin beharreko lanketa tekniko guztiak jasotzen dituen espedientea dela, Idazkariaren, Giza Baliabideetako teknikariaren, kontuhartzailearen eta ingurumen eta landa garapenerako teknikariaren txostenak oinarri izanik. Horrekin batera lehen aipatu bezala Garbitaniak 2025ean egindako poligonoetako azterketa xehea, non ikusten den bilketa hori bideragarria izango dela eta ez duela kostu gehigarririk suposatuko eta gainera aukerak egon daitezkeela hondakinek defizit orokorrari bere ekarpena egiteko, orduan Alkateak txostenak ongi begiratzeko gomendioa luzatu die zinegotziei.

Poligonoetako bilketa udalaren gain hartuta, hauek kontrolatzeko eta kudeatzeko ahalmena izango ditu. Aukera izango da herriko enpresei arreta zuzenago bat emateko, azken hau enpresak egindako eskaria izanik. Alkateak dio EAJ ere ados egongo dela poligonoak txukun mantentzeko neurri bat izan daitekeela eta hori dela guztion helburu. Aipatzen du kontrol finantzarioa ere udalarena izango dela, industria guneetako hondakinen tasa eta salmenta, edo hortik sortzen diren hondakinen salmenta Udalaren eskumenekoak izatera pasako direlako.

Orain arte bezala jarraituz gero, Udalak ez du eragin berdina izango industria gunetako hondakinen bilketa selektiboa eraginkorragoa izan dadin, ezta errentagarriagoa izan dadin ere. Arrazoi horregatik, Alkateak gogora ekartzen du 2018ko azaroan, hain zuzen, Janire Mitxelenak aipatu duen adostutako akordioa, eta akordio horretan jasotzen dena, batetik EAJ-k proposatu zuela, hiri hondakinen kudeaketa aztertzeke batzordea sortzea. Batzorde horren helburua ez zela bilketa sistemez eztabaidatzea, baizik neurri egokiak eta errealistak proposatzea herritarren erosotasuna eta kostu publikoa arduraz kudeatzeko. Bi alderdi politikoek aitortzen dute, halaber, birziklatze maila onak lortzen direla Oiartzunen, eta bestetik, Europako Zuzentaraua dela hondakinen kudeaketan ezinbestean errespetatu beharreko markoa. Hala, etorkizunera begira, udaleko bi alderdi politikoek gai honetan ere elkarlanean jarduteko konpromisoa hartu dutela aipatzen du Alkateak.

Bestalde, Udalak hondakinen kudeaketa osoa berraztertu eta hobekuntzarako pausoak zehaztu eta defizitaren karga guztia herritarren lepo ez uzteko lan egin beharko duela esaten da. Jakin behar da hondakinen kudeaketan, etxeetako atez ateko bilketaz gain, industria gunetako bilketa ere sartzen dela. Azken zerbitzu hori orain arte San Markos Mankomunitatearen bidez egin izan da, baina Udalak baloratu du une egokia dela zerbitzuaren kudeaketa berreskuratzeko, batetik poligonoetako bilketa eraginkorragoa izan dadin eta bestetik honek eragina duelako defizitean. Hau sinatutako akordioan jasota dagoela dio Alkateak.

Landutako arloak, lehenik, etorkizunean sortze besteko tasa jarri ahal izateko pausoak ematea, papera eta ontzi arinak erabilera anitzeko poltsetan ateratzea, etxeetako ibiltzeko sistema eraginkorrago eta erosoago bat jartzea, poligonoetako hondakinen bilketa eta kudeaketa Udalak berreskuratu eta optimizatzeko neurriak jartzea, eta amiantoa duten instalazioen errolda egitea izango lirateke. Lau puntu hauetatik hiru martxan daudela eta falta dena, hain zuzen ere poligonoetako hondakinak berreskuratzea izango litzatekeela azaldu du Alkateak.

Udalbatza honen helburu, espedientearen eta bi partiduek adostu zutena maila teknikora pasatzea izango litzatekeela dio Alkateak. Elkarlan honen bidez udal baliabideak egoki erabilia, herritarren erosotasuna lehenetsun gisa mantenduz, Udalak berresten du hondakinen kudeaketa hobetzeko konpromisoa. Bestalde, trantsizio ekologikoan eta kudeaketa arduratsuen arloan, Oiartzunek etorkizuneko herri aitzindarien artean kokatzea da akordioan jasota dagoena.

Beraz, Alkateak dio poligonoetako bilketa udalak eskuratzean ados daudela bi partiduak. Zerbitzu efizienteago eta bideragarritasun ekonomiko handiagoa izanik helburu.

Hortik aurrera Alkateak jakitera eman du, egindako lanketa teknikoak izan dela eta horregatik jaso direla espedientearen, Idazkariak, kontu-hartzaileak, ingurumen teknikariak eta giza baliabideetako teknikariak egindako txostenak. Hauek poligonoetako bilketa eta kudeaketa egiteko modu eraginkor eta efikazena, Garbitania Zero Zabor entitate publikoaren bitartez egitea dela ondorioztatzen dute. Garbitaniak egindako aurre azterketak, poligonoetako bilketa eta kudeaketa lanek defizitrik ez dutela sortuko aurreikusen da. Bi alderdien artean adostutako akordioa ehuneko ehunetan betetzeko bidean dela dio Alkateak. Azkenik, Oiartzungo hondakinen kudeaketa politikak trantsizio ekologikoa gauzatzen den garaian aitzindaria izan dela eta, hala izaten jarraituko duela aldarrikatu du Alkateak.

Alkateak jarraitzen du esaten aurrerapausoak ematen jarraitu nahi dela, ahal dela elkarlanean eta ordezkari politikoaren, teknikariaren, zein herritarren ahaleginen fruitu izango dela. Berrestu nahi izan du, balorazio politikoa akordioan jasota dagoela, eta gaurkoa akordio politiko hori gauzatzeko erabaki tekniko bat dela.

Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartu du eta beraien adostasuna adierazi du hondakinen kudeaketa hobetzeko dagoen beharrear, baina erabiletako instrumentuarekin ez daudela ados adierazten du. Garbitaniak azterketa txostena egin duela, baina ez dela argitzen beste aukerak zein diren hau da, konparaketak ez direla argi agertzen, ez dela beste lizitazio bat egin, edo udalak eginda emaitzak zeintzuk izango ziren ez dela aztertu azpimarratu du zinegotziak. Agertzen den bakarria Garbitanian sartzea dela aukerarik onena baina kanpo konparaketarik ez dagoela aipatzen du.

Alkateak konparaketa badagoela dio.

Janire Mitxelenak kanpo konparaketarik ez dagoela dio hau da, udalaren konparaketa ez baizik eta kanpo enpresa batek eginikoa egokiagoa litzatekeela dio. Azpimarratu nahi izan du, ados daudela akordioarekin baina ez erabilitako instrumentuarekin. Beraz, abstenitu egingo direla dio.

Jon Albisu Mendiburu gaian interesa duenez bozketara pasa baino lehen Udal Pleno aretotik ateratzen da.

Beraz, esandako gutzia kontutan hartuta, zerbitzuaren kudeaketa sistemari buruz idatzitako Memoria, zerbitzuaren bideragarritasunaren inguruko txosten teknikoa, bitarteko propioaren izaerari buruzko Memoria eta udal zerbitzuek idatzitako txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoak ikusirik eta Antolaketa eta Kontu Berezien batzordeak 2026eko otsailaren 19an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz onartu du Oiartzungo udala Garbitania Zero Zabor S.L.ren kide izateko erabakia eta partizipazioen erosketa, eta bitarteko propioa izendatzeko proposamena.

### **Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	8	8 EH Bildu
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>	4	4 EAJ/PNV

-V-

### **OIARTZUNGO UDALERRIA BIZITEGI-MERKATU TENTSIONATUKO EREMU DEKLARATZEKO AGIRIAK ONARTZEA ETA JAURLARITZARI ESKAERA IGORTZEA**

Etxebizitza Eskubidearen aldeko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak neurri sorta zabala jasotzen du, besteak beste, etxebizitza arazoizko prezioan eskuratzea bermatzeko. Horien artean, "eremu tentsionatuak" izenekoetara bideratutako neurri espezifikoak nabarmentzen dira. Beraz, lege honen esparruan tentsioan dauden eremuak izendatzearen garrantzia handia da, eta formalizatzeko prozedura batzuk bete beharko dira.

Udal espedientea hasi aurreko txosten juridikoan zehaztu zen bezala, prozeduraren izapidetzea udal interesdunak eskatuta bultzatuko da, eta hark prozedura hasteko eskaera aurkeztu ahal izango du lurralde eremu jakin bat etxebizitza merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko.

Oiartzungo Udalbatzak 2025/09/24ean harturiko akordioaren arabera Oiartzunen bizitegi merkatuko tentsio eremuen izendapenerako espedienteari hasiera ematea erabaki ondoren, justifikazio Memoria eta txostena idazteari ekin zitzaion, Aztiker Ikergunearen laguntzarekin.

Aipatu legeak aurreikusitako prozedura jarraitzeko dokumentazioa Eusko Jaurlaritzari bidali beharko da, eremua edo esparrua mugatzen duena, bai eta eremua tentsionatutzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla justifikatzen duen memoria ere. Horrez gain, Estatuko Etxebizitza Legeak eskatutako dokumentazio osagarria ere aurkez daiteke, mugarik gabe; zehazki, neurrien plan espezifikoa eta haren aplikazio-kronograma.

Horregatik guztiagatik, une honetan Oiartzungo Udalari dagokio Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen sailari Oiartzun bizitegi-merkatuko eremu tentsionatu izendatzeko prozedura hasteko eskaera aurkeztea.

Eskabidearekin batera, idatzi diren agiri hauek bidaliko dira: Justifikazio-memoria, Estatuko Etxebizitza Legean zehaztutako edukiarekin, txosten teknikoa eta garatu nahi den neurrien plan espezifikoen inguruko ekintza-plana, kronograma barne.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren eta Udal Arkitekto teknikariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak batzordeak 2026eko otsailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

## AKORDIOA

Lehena.- Eusko Jaurlaritzan etxebizitza-arloko eskumena duen sailari Oiartzungo udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko prozedura has dezan, legez ezarritako dokumentazioarekin, aurkeztea.

Bigarrena.- Bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu izendatzeko prozedura jarraituta, izendapena egiten bukatu dezala, udal honek, 12/2023 Etxebizitzaren Eskubidearen Legeak eta Hiri Alokairuen 29/1994 Legeak aurreikusitakoarekin bat, hartzea proposatu dituen neurriak martxan jar ahal izan ditzan.

Hirugarrena.- Aipatu 12/2023 Legearen 3.k) atalari dagokionez, Oiartzungo udalerrian edukitzaila handitzat bizitegi-erabilerako bost hiri-higiezin edo gehiagoren titularra jotzeko proposamena egitea.

Alkateak ebazpen proposamen azaldu ondoren, azpimarratu nahi izan du proposamen hau Oiartzungo udalak landu duen etxebizitza plan integral baten parte dela. Espekulazioari trabak jartzea, herritar zaurgarrienak babestea, egitura eta antolaketa urbanistiko jasangarriago bat edukitzea eta etxebizitza bizileku gisa lehenesteak direla beraien lehentasunak.

Etxebizitza plan integralaren erpinetako bat azaldu du Alkateak. Tentsio eremu izendatzeko eskaera egingo zaiola Eusko Jaurlaritzari.

Horretaz gain, beste sei neurri gehiago hartu nahi ditu udalak adierazten du Alkateak. Lehena, etxe hutsak alokairuan ateratzeko Bizigune edo ASAP programarekin jarraitzea bigarrena, Etxebizitza tasatuen salerosketetan udalak eskumena izatea hirugarrena, eredu guztietako promozio berrietako etxebizitzak egiteko neurriak hartzeko eskumena izatea laugarrena, aurreko Udalbatzan onartutako erabilera turistikoko etxebizitza eta establezimenduei neurriak jartzea bosgarrena, etxebizitza hutsen inbentarioa egitea eta azkenik, aipatutako tentsio handiko eremuaren izendapena eskatzea.

Hortaz, udalaren eskumenekoak diren neurri guztiak lantzen jarraituko dutela eta etxebizitza eskubidearen alde eta herritarren etxebizitza beharrei erantzuteko asmoz lanean jarraitu dutela jakitera eman du Alkateak.

Beraz, esandako guztia kontutan hartuta, Idazkariaren eta Udal Arkitekto teknikariaren txostenen baitan eta Lurralde batzordeak 2026eko otsailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du, Oiartzungo udalerria bizitegi-merkatu tentsionatuko eremu deklaratzeko agiriak onartzea eta jaurlaritzari eskaera igortzea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

-VI-

**OIARTZUNGO UDAL ARAUBIDEN ETXEBIZITZA TASATUEN ESKATZAILEEN ERREGISTROA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA**

Oiartzungo Udal araubideko etxebizitza tasatua arautzeko udal Ordenantzak, 2007ko martxoaren 29ko osoko bilkuran onartua eta 2007ko ekainaren 5eko 110 zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 16. artikuluan ezartzen zuen Oiartzungo Udalak Udal Etxebizitza Tasatuen eskatzaileen Erregistro iraunkorra izango duela.

Ondoren, ordenantza hori berrikusi egin da, eta formulazio berria izapidetu, onartu eta 2025/06/24an argitaratu da.

Erregistroaren helburua da, batetik, datu zehatzak ematea udal araubideko etxebizitza tasatuen adjudikazioa kudeatzeko eta kontrolatzeko eta, bestetik, informazio eguneratua edukitzea babes publikoko etxebizitzaren programazioak dagoen eskaerara egokitzeko.

Une honetan egokia da eskatzaileen erregistroa arautzen duen Ordenantza (Ordenantza hori 2010/10/11ko 195. Zk.ko GAOn argitaratu zen, eta bere aldaketa 2020/02/03ko 21. Zk.ko GAOn) egokitzea, dokumentazioa aurkezteari buruzko alderdiak eguneratzeko, elkarreragingarritasunaren ondorioak barne, bai eta udalak tasatutako etxebizitzaren esleipendunen hautaketa bigarren eta hurrengo eskualdaketetara zabaltzearen ondoriozko alderdiak txertatzea ere.

Erregelamendu hau ezartzen da Erregistroaren funtzionamendua arautzeko, oinarrituta batik bat Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren araudian. Sail horrek 2012ko urriaren 15ean emandako Aginduan araututa gelditzen da Babestutako Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoaren (Etxebide) etxebizitza eskatzaileen Erregistroa.

Horren arabera, eta Oiartzungo Udal araubideko etxebizitza tasatua arautzeko udal ordenantzan xedatutakoarekin bat etorriz, Udal honek eskatzaileen erregistro bat sortu zuen, eta, dokumentu honen bidez, haren erregulazioa eta funtzionamendua eguneratzen ditu.

Guzti hau kontuan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta Lurralde batzordeak 2026eko otsailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen zaio

**AKORDIOA**

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Oiartzungo Udal Araubideko Etxebizitza Tasatuen Eskatzaileen Erregistroa arautzen duen Udal Ordenantzaren aldaketari.

Bigarrena.- Udal Ordenantzaren aldaketa jendaurrean jartzea eta interesdunei entzutea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, hogeita hamar eguneko epean espedientea aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Erreklamazioak edo iradokizunak Udalbatzak ebartziko ditu.

Aldi berean, udal ordenantzaren aldaketaren testua Udalaren web atarian [<https://www.oiartzun.eu>] argitaratzea, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.

Epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, udalbatzak behin betiko onartu duela ulertuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe.

Beraz, esandako guztia kontutan hartuta, Idazkariaren txostenaren baitan eta Lurralde batzordeak 2026eko otsailaren 18an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Oiartzungo udal araubideko etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroa arautzen duen erregelamenduaren aldaketa.

### Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
<b>Alde</b>	13	9 EH Bildu, 4 EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

-VII-

BESTE ORGANOEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK, GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN, 2025EKO DIRUZAINNTZA PLANAREN EXEKUZIOA, DIRU FLUXUEN EGOERA ETA AURREKONTUETAKO BALANTZEAREN BERRI EMATEA.

Idazkariak honako berri eman die Udalbatza kideei:

1. Hartutako erabakiak:

Alkatearen ebazpenak:

2026eko urtarrilaren 24tik otsailaren 20ra arte.

Zk. 2026/189tik 2026/383ra.

Tokiko Gobernu Batzarra:

Bilkura honen deialdia egin zen eguna arte Tokiko Gobernu Batzarra bitan bildu da, 2026eko otsailaren 10ean eta 24ean, hain zuzen ere.

2. Protokolo eta ordezkapen gastuak eta dietak:

2026ko urtarrila gastuak:

Loreak, eskelak	50
Bidaiak	42,19
Bidalketak, materiala	22,88
<b>Guztira</b>	<b>115,07</b>

3. 2025eko diruzaintza planaren exekuzioa, diru fluxuen egoera eta aurrekontuetako balantzearen berri ematea.

-VII-

## ESKARI-GALDERAK

Ez zen egon.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 19:25ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritik Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea



OIARTZUNGO  
UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria



OIARTZUNGO  
UDALA

Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026ID370002-Akta Udal Osoa/Akta Udal Osoa (OIARTZUNGO UDALA)